



**2023KO AZAROAREN 6KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren 6an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Bilkurari hasiera eman aurretik, Tokiko Gobernu Batzordeak, gai zerrendan ez dagoen eta Gizarte Zerbitzu, Berdintasun eta Adineko Pertsonen batzordeburuak proposatu duen hurrengo gaia jorratzea erabaki du: "Lazkaoko udalerrian mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko laguntzak emateko, 2023 urterako deialdia onartzea".

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2023ko urriaren 23an egindako ohiko bilkurako eta 2023ko urriaren 26an egindako ez-ohiko bilkurako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 83 zenbakidun fakturen zerrenda, LAUROGEITA SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI euro ETA HOGEITA HAMAR zentimokoa (86.937,30 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- 2024ko San Prudentzio jaietako programarako portada lehiaketako irabazleari.-

2024ko San Prudentzio jaietako programaren portada aukeratzeko lehiaketaren oinarriak eta sari ordainketaren proposamena aurkeztu dira bere onarpenerako.

Hau honela, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehena.- San Prudentzio jaietako programaren portada aukeratzeko lehiaketaren oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Irabazlearentzat 200 €-ko sari proposamena onartzea.

Sari hau 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.


IV.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei lehen ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	3.595 €
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	1.885 €
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.080 €
OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI)	2.200 €
OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI)	380 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	4.080 €
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	2.000 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	370 €
GERRIKO SL	210 €
GERRIKO SL	110 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	930 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	1.650 €
ALBERTO SUKIA (SUKIA HARATEGIA)	450 €
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	320 €
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	640 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	485 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	285 €
AGURTZANE DE MIGUEL.. (KOXXOR)	75 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	1.095 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	2.705 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	2.905 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	1.760 €





GUZTIRA

30.210 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

V.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei seigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
Aitor Iztueta Barandiaran	90 €
GUZTIRA	90 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VI. GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzu, Berdintasun eta Adineko Pertsonen Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Lazkaoko udalerrian mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko laguntzak.-

Lazkaoko udalerrian mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko laguntzak emateko 2023 urterako deialdia onartzea. Honakoa dio deialdiak:

"1. artikulua. Xedea.

- Laguntza hauen deialdiaren helburua Lazkaoko herrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten eta estimulazio edo errehabilitazio tratamendua behar duten pertsonen urteko gastuak arintzea da.

2.artikulua. Aurrekontu diru hornidura.

Deialdi honetan emango diren diru laguntzen zenbateko osoa 11.000,00 eurokoa izango da, Lazkaoko udalaren 2023ko aurrekontu orokorre dagokiena.



3.artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; diru Laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 20an onartutako mendekotasuna edo desgaitasuna duten Lazkaoko udalerriko pertsonak estimulazio/errehabilitazio programak egiteko, laguntzak emateko oinarriak.

4.artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.

4.1. Dokumentazioa:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Eskatzailea eta familia unitatea osatzen dutenen Nortasun agiriaren fotokopia.
- Familia liburuaren fotokopia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren desgaitasun ziurtagiria (udalari ziurtagiria lortzeko baimena ematen bazaio, ez da aurkeztu beharko).
- Eskaeraren aurreko urtean egindako tratamenduaren urteko gastuaren egiaztagiria.
- Kontu zenbakiaren 20 digituak.

Eskatzaileak bere familia unitatearen egoera ekonomikoa baloratzea nahi badu, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Lazkaoko udaleko Gizarte Zerbitzuei baimena ematen dion agiria, behar diren datuak sektore publikoko edozein erakunderengandik zuzenean jaso ditzan, laguntza hauek lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.
- Jasotako diru sarrera garbien agiria (10T, nominak, pentsioa ...)
- LANBIDE k, Estatuko Enplegu Zerbitzuak eta / edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako urteko prestazioei buruzkoa edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonena.

4.2. Eskaerak aurkezteko epea:


- Eskaerak 2023ko azaroaren 20tik 30era arte aurkeztu ahal izango dira."

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.



VIII.- BILERAREN AMAIERA.-
LAZKAOKO
UDALA



LAZKAOKO
UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA